

TOKIKOM

2023ko apirila | 235. zenbakia

aikor!

erriko aldizkaria



Arrate Etxeberria
Aktorea



Izan Aikorlagun!

Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



Bidali ALTA

747 406 561
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemale ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).

-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  10 Novaltiako greba bukatu da
-  12 Gurean izan da... Akerbeltz taldea
-  14 Gaztea eta... Izaro Sauto, artista
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Menditik patxadaz... Errotariak
-  20 Arrate Etxeberria, aktorea
-  24 Derioko San Isidro jaiak
-  28 Aikorlagun kanpaina
-  30 Musaren errege-bikotea
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Kailu-belarra
-  34 Teknologia... Soziolinguistika-materiala
-  35 Hileko argazkia... Teknologia Parkea
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda





**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**BFA
DFB** Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



**TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA**

diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Maketatzailea eta erredaktorea: Gaizka Eguzkitza
Kolaboratzaileak: Ines Serrano, Bego Vicario, Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Alaitz Zuazo, Juanjo Ortiz, Son Aoujil, Alex Albarrán eta @txiribita_mundi
Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo
Publizitatea: Amaia Lekue (688 782 642)
Banaketa: Baires
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 8.000
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

Maitasuna eta edalontzia

Soziolinguistika ikasten hasi nintzanean (artearen berba bera ez nuen guztiz ulertuta, hori ere aitortu beharra dut), beste mundu bat zabaldu zitzaidan euskararen unibertsoan. Orduan, *Un futuro para nuestro pasado* (Jose M^a Sanchez Carrion "Txepetx") zen gure testu liburua eta han barneratu nituen, antza, (oraindik gogoratzen baititut, gezurra dirudien arren) hainbat ideia eta kontzeptu. Egia esanda, horren ostean ikastaro, mintegi eta abarretan ibilia naiz, baina harek jarri ninduen ni inflexio-puntu famatu horretan. Seguru asko, orri horien artean nire burua ikusten bainuen behin eta berriro.

Munduan badira etengabe eragiten duten indar bi: bata jakintzaren indarra da, eta bestea, maitasunarena. Filosofiaren esanahi etimologikoak biak batzen ditu: jakinduriarekiko

maitasuna. Deformazio existentziala izan daiteke, baina zeozker harrapatzen baninduen, ahalik eta gehien ezagutu beharra nuen; dut, oraindik ere.

Bada, gaztea nintzela euskararekin maitemindu nintzen. Eta nire maitemina gehiago jakitera bultzatu ninduen; horretan datza Txepetxen teoria, motibazioaren, ezagutzaren eta erabileraren ontzien bidez azaltzen duena. Nirea hasieran motibazioarena zen, jakinmina, baina besteak ere elikatuz joan ziren. Gero, erabilerak behartu ninduen gehiago ezagutzera, eta jakiteak erabiltzera behartu, nola ez. Oso joko polita da, oraindik ere. Honetan zorte onekoa izan naiz, leku askotan eta jende askorekin aurkitu baitut zer ikasi.

Harrezkero urte luzeak joan dira eta hamaika leku eta ingurumaritan ibili naiz, bai euskal tailerretan zein guraso elkarteetan, kontsumo taldean, Literatu-



INES SERRANO
Filosofian lizentziaduna

rian...; esan bezala, gehienetan bidaide atseginekin, eta beti ere euskarari lotzen zaion ikuspegi zahar bezain koloretsuak lagunduta. Gehienetan, bai, baina tira, oztopoak ere ezinbesteko ditugu errealitateari tamaina hartzeko, ezta?

Maitasuna bada eragilea berdindio edalontzia erdi beteta edo erdi hutsik dagoen. Goza dezagun ura dagoen artean; horixe izango baita gure ondarerik onena.

Adinak ezarritako goiko langarekin topo egin nuen lehen aldian 40 urte nituela izan zen, seme gazteena adoptatu genuenean: garai hartan hura zen haurraren eta gure artean egon behar zen adin-aldea.

Adinari lotutako mugak haurtzarotik bizi izaten ditugu, eta kasketak txikitatik izaten ditugu, ezin ditugunean zenbait gauza egin, hala nola autobusean bakarrik joan, alkohola edan, gidatu eta abar. Horiek guztiak egiteko aukera izaten dugun adinera iristen garenean, lorpen handi gisa bizi izaten dugu eta barrubarruko poza ekartzen digu normalizatzen dugun arte.

Adina



BEGO VICARIO
EHUko irakaslea

Naturala da hazteko eta nagusitzeko nahia, eta prozesuan jasotzen ditugun estimulu horiek guztiak justifikatzen dute. Baina une batean adinak berak ekartzen dizkigun mugak sentitzen hasten gara: batzuk naturalak dira, gorputzaren narriadura kasu; eta beste batzuk, horietatik sortutakoak, esaterako, haurrak izateko mugak.

Normala da horrek eragiten digun frustrazioagatik kasketak izatea, baina oraingoan geu gara gure buruari ezezkoa eman behar diogun nagusia. Larritzen bagara ere, ez genizkioke gure barruko haurrari kapritxo guztiak onartu behar.

Alaia
fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak
Taller, 5
48170 Zamudio
946 850 585

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO

ama
taberna 3
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Boxeo profesionala utzi du Kerman Lejarragak

Albistea gizarte-sareen bidez iragarri zuen apirilaren 19an. Morgarrak boxeo jaialdi ederra antolatuta zuen apirilaren 29rako Madrilan, baina bere arerioak, Pzremyslav Runowskik, jakinarazi zuen ezingo zuela horretan lehiatu; egoera aprobetxatuta, Errebolberrak adierazi zuen arazo fisikoak direla-eta boxeo utziko zuela. "Beti pentsatu dut % 100 emateko gai izan ezean boxeo utziko nukeela. Atzoko gertakariak ikusita, agur lehenago esan beharrean nago," esan zuen.

Apirilaren 29ko borrokaren emaitza zein zen ere, boxeo utzea aurretik erabakita zuen Lejarragak. Boxeolari ez zebilen bere burua apirilaren 29ko borrokarako ondo prestatzen, arazo fisikoak zituelako. Horren harira, gertukoek ez lehiatzeko aholkua eman zioten, baina berak ahalegina egin zuen sasoiaren egoiteko, "agur ringean" esan nahi zuelako. Komunikatuan, Lejarragak zaletuak ere izan zituen gogoan, bere alboan beti egon direlako, "momentu onenetan zein txarrenetan". Hori dela eta, ez du azken momentuan beste aurkari bat topatu nahi izan, "zaletuek merezi ez dutelako".


Hemendik aurrera sustatzaile ibiliko da Errebolberrera. "Banekien boxeo utzteko momentua iritsiko zela, eta nahiz eta atzeratzen saiatu, eguna heldu da. Hemen amaitzen da bidaia polit hau; zuen eskutik, nire bizitzaren ume zorionsuenak izan dira. Boxeo nire bizitza da, baina kirol honen beste aldera pasatuko naiz: gaurtik aurrera buru-belarri ibiliko naiz promotore-lanetan, atzetik datozen boxeolarietako etorkizun oparora emateko".

Boxeolariaren hitzetan, burumakur dabil, baina ilusio handiz egingo dio bere bizitzaren etapa berriari aurre. Azkenik, esker oneko hitzak izan ditu zale-tuentzat. "Mila esker eman didazuen babes guztiagatik, zuek gabe ez zatekeen posible izango heldu naizen lekura heldu izana; zuek izan zarete nire kirol-bizitzaren erroa. Eskerrik asko".

34-3

Kerman Lejarraga 1992an jaio zen Morgan, eta 2013an debuta egin zuen profesional mailan. Hurrengo sei urteetan

ez zuen borroka bat ere galdu, eta gaur egun 34 garaipen lortu ditu (horietako 26, KOz), eta hiru porrot. Welter kategorian, Estatuko txapeladuna izan da, baita WBA eta EBU elkartearen eta WBC elkartearen txapeladun latindarra ere. Halaber, superwelter kategorian, EBU elkartearen gerrikoa irabazi du. Horri uko egin zion iaz, superwelter kategoriako IBO International munduko txapelketa irabazi nahi zuelako, baina azkenean ezin izango du horrelakorik lortu.



Gure ikasleen ahotan

"Gehien gustatzen zaidana irakasleekiko harremana da, oso gertukoak dira"

Janire Fuentes Amor Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa gradua ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Batxilergoa Trueba ikastetxean amaitu nuen. Zientzia izan da txikitatik nire pasioa, nerabezaroan argi neukan astrofisikarekin lotutako zerbaitetan lan egin nahi nuela. Gero, fisikaren beste adar batzuekin zaletu nintzen; hala nola, fisika kuantikoa, erlatibista, fisika nuklearra eta kimiofisika. Nire zaletasunak dibulgazio zientifikoa irakurtzea, gozogintza, jostea, karatea eta gimnasioa dira.

Zergatik aukeratu zenuen Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Industriari aplikatutako Fisikako Ingeniaritza gradua aukeratu nuen, teoria arazoak konpontzeko eta ikerketan aplikatzeko ideiak asko erakartzen ninduelako. Horrez gain, ikasketa plana irakurtzean karga matematiko handia zegoela ikusi nuen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen, bertan ikasitako eta ikasten ari ziren senideek gomendatu zidatelako. Ikasketa metodoa gomendatu zidaten gehien.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako edozein hezkuntza eredutatik guztiz ezberdina izan da. Unibertsitateko irakasle eta langileekin izandako esperientzia bikaina izan da. Irakasleekin daukadan harremana estua da eta, nire esperientziagatik, inor ez dute atzean uzten.

Ikasketa ereduak gure jarrera eta eguneroko lana hartzen ditu kontuan. Ikastaroan zehar proiektuak egiten dira eta talde lana baloratzen da.



Nola definituko zenuke Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Hezkuntza eredu berritzailea da dudarik gabe, batez ere, ezagutzen dudun unibertsitate bakarra delako hura inplementatzen duena. Ereduak baloratzen ditu talde lana, eguneroko lana eta pertsonekiko.

Jarrera eta proiektuak ebaluatzen dira, ez soilik amaierako azterketa bat. Azpimarratzeko jardueretako bat fisikako esperimenduak dira, laborategia dugu non klasean ikasitako lege fisikoak eta kontzeptuak egiaztatzeko aukera ematen digun.

Unibertsitatez zer da gehien gustatzen zaidana?

Gehien gustatzen zaidana irakasleekiko harremana da, gertukoak dira, baina lanean ari garela ziurtatzen dute. Ikastera motibatzen gaituzte baina pazientzia izaten dute. Proiektu-lana ere nabarmena da, taldean goiz lan egiten ikastea ezinbestekoa da eta klase arrunteko banakako lanarekin eteteko ona da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Etorkizunarako itxaropen asko ditut, baina espero dut fisikan egindako urteak zein bide hartu aukeratzeko laguntzea. Fisika nuklearra maite dudana zerbait da, baina astrofisika eta fisika kuantikoa ere interesgarriak eta motibagarriak iruditzen zaizkit. Argi daukat beti ikusten dudala neure burua ikertzen eta ikasten, egia esan ez dut bazterten irakasle izatea.

Lezamarrak, garaile Bizkaia CUPen

Emakumezkoen B kategorian, Aiala Uriarte Gordon eta Uxue Perez Pueyo Lezamako Pilota Klubeko pilotariek 22 eta 9 irabazi zieten Txumulueta Dimako pilotariei, Zeberion. Bestalde, klubeko Markel Cabellok Nagusien C mailako finala jokatu zuen Barakaldoko frontoian, Usansoloko Xabier Astobieta bikotekidea zuela; 22 eta 12 irabazi zuten.



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Iñaki Astorkiza da apirilako irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du sarritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



Oier Hormaetxe pilotari lezamarra, munduko txapelduna



Esku-pilota Nazioarteko Konfederazioak (CIJB) antolatuta, Munduko Txapelketa izan zen Valentzian, martxoan. Euskal selekzioa gogotsu ibili zen bertan eta domina batzuk ekarri zituen etxera; horietako bat Oier Hormaetxe lezamarrak eskuratu zuen.

“Oso pozik gaude. Ez ginen faboritoak, baina garaipena lortu dugu”, esan du Hormaetxek. Finalean 21 eta 2 irabazi zioten Ekuadorri, baina arerio gogorrenak final laurdenetan eta finalerdietan etorri ziren. “Mexiko eta Valentzia bereziki gogorrak izan ziren. Finalerdian etxekoen alde jokatu genuen, eta 21 eta 17 hartu genituen mendean, baina ordu-bete baino gehiago eman genuen jokatzen. Zaila izan zen, bai horixe!”. Lezamarrak Gaizka Iruetagoienarekin jokatu zituen lehenengo partidak, baina final-

laurdenetatik aurrera, Egoitz Amantegiarekin. “Eskarmentu handiko pilotaria da eta izugarri lagundu dit”.

Hormaetxe pilota valentziarra modalitatean izan da txapelduna. Frontoia bertokoak baino txikiagoa da eta pilota, gureak baino arinagoa. Modalitate berri horretara egokitzeko, Oierrek aste batzuk eman zituen Zestoako frontoian entrenatzen. Horrezaz gainera, beste hiru kategoria daude txapelketan: nazioarteko jokoa, *llargues* eta *one wall*. Bakarrik lau talde sartu dira lehen lau kategorietan, Euskal Herria, Valentzia, Herbehereak eta Ingalaterra; baina gainerakoek, 16 guztira, modalitatearen batean jokatu dute: Frantzia, Ekuador, Belgika, Paraguai, Argentina, Mexiko, Costa Rica, Portugal, Italia, Estatu Batuak, Puerto Rico, Venezuela, Kolonbia, Uruguai, Japonia eta Quebec.

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 08

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Elikagai sintetikoak ekoiztea eta saltzea debekatzeko eskatu du EHNE Bizkaiak

Sindikatuak bere kongresua egin zuen apirilean Txorierriko Baserri Antzokian, "Gaurko iluntasunean biharko argitasuna bilatzeko ibilbideak" lelopean. Bertan, elikagai sintetikoaren kontra azaldu ziren, eta horiek ekoiztea eta saltzea debekatzeko eskatu zieten euskal erakundeei.

EHNE Bizkaia sindikatuaren esanetan, krisi sistemikoa dugu eta gizarte eredu aldatu behar da. "Inoiz baino premiazkoagoa da nekazaritza eta arrantza industrializatuaren paradigmatik sistema agroekologiko dibertsifikatuetara aldatzea. Italiako gobernuak haragi sintetikoaren ekoizpena eta salmenta debekatuko ditu. Jarrera argia hartu du bere herrialdeko elikagaien sorkuntzaren harira, eta gauza bera eskatzen diegu Hego Euskal Herriko erakundeei", adierazi zuten.

Euren iritziz, neurri iraunkorrak hartu behar dira, eta, horretarako, tokiko elikagaiak kontsumitzeak gora egin be-



harko luke. "Hala ere, nekazaritza-industriaren ezarritako finantza-interesek «laborategiko elikadura» proposatzen dute, erakundeek oniritziaraz". Horren adibideak egon badaude, sindikatuaren hitzetan: Europako esnetarako behi-aziendako ustiategi industrializaturik handiena Caparroson (Nafarroa) dugu; eta Donostian egingo dute Europako in vitro haragiaren lehenengo laborategia.

"2022ko azaroan, Donostiako Udalak bai- mena eman zion BioTech Foods enpresari laborategia eraikitzeko, eta euskal erakundeek ere dirulaguntza eman diote. BioTech Foods proiektuaren atzean JBS multinazional brasildarra dago, gaur egun munduko haragi proteinen ekoizle handiena".

"Nekazaritza- eta elikadura-sistema eraldatu behar da, agroekologian oinarritutako elikadura-burujabetzarantz aurrera egiteko. Horrek bermatuko du biodibertsitatearen kontserbazioa eta lan- baldintza duinetan oinarritutako elikagai jasangarria eta tokiko elikagaia ekoiztea. Era berean, elikagaiak ekoizteko eta banatzeko kate globalak birlokalizatu behar dira, ekoizleen eta kontsumitzailearen arteko hurbiltasun- harremana bultzatzeko. Horrela, ingurune naturala eta populazio-guneak orekatuta egongo dira".

TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA

BABESPEKO APARTAMENTUAK
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

EGONALDIK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Larrabetzuk ia milioi bat euroko dirulaguntza jaso du udaletxea eraberritzeko

Larrabetzuko Udalak iragarri duenez, Estatuako gobernua 964.888 euroko dirulaguntza emango dio, udaletxea eraberritu dezan. Eraberritze-lanek bi milioi euro balioko dituzte, eta, dirulaguntzari esker, erdia ordainduko da. Dirua Pired funtsetatik etorriko da. Hori eraikin publikoak birgaitzeko sustapen-programa da, eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren Berreskuratzeko, Eraldatzeko eta Erresiliencia planaren barruan dago.

Larrabetzuko udaletxea eraberritzeko proiektua Behark estudioak egingo du, herriko aterpea egin zuen enpresak berak. Udalak espero du lanak udaberrirako lizitatzea, eta eraikina 2025erako eraberrituta egotea. "Dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari ere eskatu dizkiegu. Eta gainerakoa, udalak ordaindu beharko du. Horretarako 500.000 euroko mailegua eskatu beharko da. Lanak beharrezkoak dira, udaletxea oso zahar dagoelako eta gutxieneko irisgarritasun-baldintzak betetzen ez dituelako, besteak beste, igogailurik ez duelako", esan digu Iñigo Gaztelu alkateak.

Bitartean, udala Errebale jauregia dabil erabiltzen. Alkateak esan du eraberritzea bukatzen direnean, udaletxea erosoagoa izango dela. "Eraikineko barrukoa erabat aldatuko da. Zerbitzuak beheko solairuan eskainiko dira: auzokideei arreta-zerbitzua, gizarte-zerbitzuak, bake epaitegia... Eta goiko solairuan, batzar-gela ere berrituko da eta alboan erabilera anitzeko gela jarriko da. Eraikinean eguzki-plakak ipiniko dira eta energia berriztatzaileak erabiliko ditu"



Euskal ezkontza Sondikan, desanexioa ospatzeko



a: Juanjo Ortiz

Berrogei urte bete dira Derio, Erandio, Loiu, Sondika eta Zamudio Bilbotik desanexionatu zirela. Urteurrena ospatzeko, apirilaren 22an eta 23an ekintzak izan zituzten Sondikan: desanexio-prozesuan parte hartu zuten ordezkari politikoei omenaldia, Xabi Aburruzagaren kontzertua eta euskal ezkontza, hain zuzen ere.



Beste Birak Bigarren Mailan egin du debuta

Hilaren hasieran, Euskadiko Bigarren Mailako txapelketa izan zen Getxon, eta Txorierriko atletismo taldeak bertan egin zuen debuta. Txapelketan, besteak beste, La Blanca, Eibar eta Getxo taldeak aritu ziren. Oraindik ez gaude besteen parean, berriak garelako. Hala ere, lehen pausua egin dugu etorkizun hobea eraikitzeko, eta ziur gaude akuilua izango dela taldeko gazteentzat”.

Bigarren mailara igotzeko, Federazioak eskatu die 16 saiotako 14tan parte hartzeko; eta ez dira ez pertikan, ez hesi-lasterketan aritu. “Martxa etxean entrenatu dugu; saltoak koltxoneta batean, jaurtiketak landan... Entrenamenduak izan dira protagonistak bere



mugak gainditzen dituen filmetakoak bezalakoak, baina primeran pasatu dugu eta gure atletak eskuzabalak izan dira oso”.

Bestalde, aurten Bizkaiko Kros Txapelketa irabazi dute master kategorian, eta apirilean eta maiatzean oinarritzko mailerako finalak izango dira. “Espero dugu atleta gazte batzuek finaletarako txartela

lortzea. Dena dela, ume guztiak ez dira berdinak, eta guztiak ez dituzte lehiak irabazi nahi; hau da, batzuek bakarrik kirola egin nahi dute, eta horiek ere ongietorriak dira klubean. Guztiak ematen diegu atletismoan jarduteko aukera. Hori da klubaren oinarria”.

Klubak lanean jarraitzen du, eta adierazi dute Zamudioko instalazioak handitu nahi dituztela, eta, umeen gurasoek eskatu duten moduan, han harea-hobi bat atondu. “Bestetik, amets hau dugu: emakumezkoen taldea sortzea. Horretarako, neskak beharko genituzke, eta animatu nahi ditugu bailarako neskak atletismoan aritzera eta Beste Biran izena ematera”.



ZAMUDIOKO PILOTALEKUA

ERABERRITUTA.– Eraberritze-lanetan 622.000 euro ipini ditu Zamudioko Udalak, eta 410.000 euroko dirulaguntza jaso du Bizkaiko Foru Aldunditik. Adierazi dutenez, hainbat hobekuntza egin dira frontoian: sabaia aldatu, harmailak handitu, eta aldagela egokitu, besteak beste. Gainera, irisgarritasuna hobetu da. Bestalde, margolan handia ipini da kanpoaldean, Done Jakue bidea adierazteko; Eusko Jaurlaritzak 6.000 euroko dirulaguntza eman du margolana egiteko.

DANONTZAKO IREKITAKO INSTALAZIOAK

- KAFETEGIA •
- 4 PADEL PISTA •
2 PISTA ESTALIAK
2 PISTA ESTALI GABEKOAK
- UDAKO IGERILEKUAK •

“DERION,
DANONTZAKO IREKIA
PARKE TEKNOLOGIKOTIK
5 MINUTURA”

Gaztañatxu Kalea 16, Derio
www.clublandabarri.es

LANDABARRI KAFETEGIA

- EGUNEKO MENUA
- KARTA
- MENU BEREZIAK
- TXULETOI MENUA
- PADELZALE MENUA
- ZAPATU TEMATIKOAK
- ETXEKO POSTREAK
- ARDO KARTA BEREZIA
Ta askoz gehiago..

1:30ko Padel Pista barne

GURE ESKAJNTZA:

ERRESERBAK : 687 775 683
(Bertan jateko edota enkarguak jasotzeko)

Errezetarik onena: konbikzioa

2019ko uztailaren 22an, Novaltia enpresaren Lezamako egoitzako langile batzuek grebara deitu zuten, lan baldintza hobekak eskatzeko. Ia lau urte beranduago, 2023ko martxoaren 30ean, greba amaitu dute. Europako grebarik luzeena izan da. Langileek ez dituzte aldarrikapen guztiak lortu, baina bai inportanteenak. Enpresak ez du iritzirik eman nahi, baina Mikel Etxeberria ELA sindikatuaren Industriako arduradunak grebaren gorabeherak azaldu dizkigu.



t: Gaizka Eguzkitza / a: ELA sindikatua

ELA sindikatuaren ordezkariak grebalarien jarrera tinkoa azpimarratu du. "Langileek konbentzimendu ikaragarria adierazi dute: eskatzen zutena bidezkoa eta posible zen, eta greba oso nekatuta bukatu arren, eustea erabaki dute, akordio on bat lortu arte. Izugarrizko indarra eta fedea izan dute, horrenbeste denbora aguantatzeko. Eta esan behar da sindikatuaren erresistentzia-kutxak laguntza eman diela, hau da, ELAren ki-deen elkartasunari esker aguantatzeko aukera izan dute".

Dena dela, greba oso "gogorra" izan da langileentzat. "Hiru urte eta zortzi hilabete eman dute greban, 1.345 egunean. Egunero ibili dira elkarretaratzeak antolatzen farmazien aurrean, farmazien kooperatiben aurrean, Novaltiaren egoitzaren aurrean, Bilbon, Zaragozara ere joan dira... Eta horri ziurgabetasuna gaineratu behar diozu. Zer gertatuko da? Nolako irtenbidea izango du arazoak?, galdetzen zioten langileek euren buruari. Eta horrek mentalki ere ekarri die nekea".

Gaur egun, aldiz, "lasai" eta "pozik" dabilta grebalariek, eskakizun garrantzitsuenak lortu dituztelako. "Gutxien kobratzen zuten langileek, grebalarien gehienek, % 27ko igoera lortu dute batez bestez. Beste eskaera bat langileen arteko soldaten-eskala biak ezabatzea izan



"Langileek eskatzen zutena bidezkoa eta posible zen eta eustea erabaki dute, akordio on bat lortu arte"

Guztira, hiru urte eta zortzi hilabete eman dute greban; Europako grebarik luzeena izan da

zen; ez dugu erabat ezabatu, baina bien arteko aldea nabarmen murriztu dugu; azpikontratazioa kentzea eta hitzarmen propioa ere ez dira lortu, baina greba bukatzeko akordioa, bai, ordea, eta horrek hitzarmen antzeko araudia ematen digu. Gainera, lan-berme batzuk ere lortu ditugu". Horregatik, sindikatuak "garai-pentzat" jo du hitzarmena. "Nahiz eta grebalarien kontra dena izan, nahiz eta enpresa kontra agertu, nahiz eta lau urte pasatu; eusteak ekarri du hitzarmena".

Langileek enpresan jarraituko dute

Langileen etorkizunari dagokionez, gehienek jarraituko dute Novaltia enpresan lan egiten, Etxebarriak berretsi digun moduan. "Guztira, 20 lagun irten ziren grebara; horietako hiruk utzi dute greba azken lau urteotan, enpresarekin hitzarmenak sinatu ostean; beste hiruk enpresatik alde egingo dute, kalte-ordaina lortu ostean; eta gainerako 14ak jarraituko dute lanean Novaltian. Gaur egun oporretan dabilta, baina maiatzaren 28an hasiko dira lanean".

Greba hasieran inork ez zuen espero horrenbeste luzatzea, baina Etxebarriaren

200 farmazia Bizkaian

Novaltia 2013an sortu zen, Vascofar eta Aragofaren presek bat egin zutenean. Farmazien kooperatiba da eta farmaziaz farmazia botikak eramaten ditu. Gaur egun, Estatuko sektoreko enpresa nagusietako bat da eta sei egoitza ditu: Zaratamo, Zaragoza, Calatayud, Gasteiz (2) eta Lezama. 2019ko uztailaren 22an, Lezamako 45 langileetako 20k grebara deitu zuten. Greba batez ere ekoizpen sailean izan zuen eragina, bertako 24 langileetatik 18k grebarekin bat egin zutelako. Grebalariek hauek eskatzen zituzten: hitzarmen propioa izatea, azpikontratazioa mugatzea eta behin-behineko langileen lan-baldintzak hobetzea.

Bizkaian, 200 farmaziak osatzen dute Novaltia, baina Aragoi, askoz gehiago. "Salbuespenak albuespen", langileek enpatia falta leporatu diete farmaziei. "Behin baino gehiagotan saiatu gara farmaziako jabeekin bileraren bat egiten, baina alferrik izan da.



Farmazia horiek ikusi dute produktuak normaltasunez heldu direla Zaragozatik eta ez dute inplikatu nahi izan, paso egin dute. Tamalgarria izan da euren jarrera", esan du Mikel Etxebarria ELA sindikatuaren ordezkariak.

esanetan, hainbat osagaik izan dute eragina. Horietako bat, enpresaren jarrera, greba eskubidea "behin eta berriro" urratu duelako. "Lezaman egiten ez zen lana Zaratamotik hasi ziren egiten; kanpoko langileak kontratatu zituzten; barrukoek grebalarien lana egin zuten, hau da, produkzioari eutsi zion. Sindikatuak salaketak jarri ditu epaitegietan eta horiek gure alde agertu dira". Era berean, Novaltiak ez du inoiz negoziatzeko asmorik izan. "Negoiazioa oso konplikatu izan da. Enpresak urte bi eman ditu bilerarik egin gabe. Iaz, aldiz, jarrera erabat aldatu zen eta mahai berean eseri ginen. Bere jarrera ulergarria da: greba urrun izan dute, merkatuak handiena Aragoi dutelako, ez hemen".

Langileen beste kexa bat Bizkaiko lan-ikuskaritzak egindako lan "negargarria" izan da. "Guk dakigula, ikuskaria ez da inoiz Lezamako egoitzara azterketa zuzenean egitera joan. Bilboko bulegoan egon dira, deitu diote zuzendaritzari, baina ez dute inolako gogorik izan, lan txukuna egiteko. Ikuskarien txostenak eskasak izan dira eta berandu heldu dira. Sentsibilitaterik eza sentitu dute grebalariek, euren salaketak lan-ikuskaritzan deserosoak izango balira moduan. Ikuskaria aldatzea eskatu genuen, eta ikuskari berriak ere lan kaskarra egin zuten, lehenengoak baino okerragoa. Baina hori ez da gurean bakarrik gertatu; tamalez, hori Bizkaiko greba askotan gertatu da".

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNCIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai itasaguru Facebook-en

tik tak
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edara
9€
T: 94 454 55 55
Bestorene 5, Behea
48160 DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku
Zaintza Berrak
Logopedia
Podologia
Kirmasajea
clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika
Txantoni estribatua, 9 - Laja | Antzaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

“Tabu guztiak gainditu dira euskal musikan; hori plazaratu nahi dugu erromerian”

JON KASS | Akerbeltzeko abeslaria



t: Itxaso Marina

Zelan joan da areto-bira berezi hori?

Oso ondo, bai gure aldetik, bai publikoaren aldetik; poz-pezik gaude. Izan ere, guk normalean ez dugu aretoetan jotzen eta kontzertu ezberdinak izan dira. Gainera, proposamen berriak aurkeztu ditugu kontzertuetan, bakoitzean sorpresa bat egon da, pegatinak eta kalkomaniak banatu ditugu, opariak... Beldur apur batekin ibili ginen hasieran: guk plazetan jo ohi dugu eta, jai-giroan egonda, badakigu haiek beteko direla; kasu honetan, berriz, ez genekien aretora joan beharri publikoak nola erantzungo zion. Baina dena ederto aterata da. Beste aldetik, niri, pertsonalki, asko gustatu zait esperientzia: soinu-probak nahi duzun orduan egin ditzakezu, areto osoa zuzentzat duzu, ez dago hotzik... (kar-kar).

Udaberriarekin batera herri eta auzo gehienetako jaiak etortzen dira; zelan datoz hurrengo hilabeteak?

Bada, maiatzetik irailera arte ez dugu asteburu liberrik; adibidez, jada 13 kon-

Hamabost urte bete ditu Akerbeltz erromeria-taldeak, eta urteurrena ospatzeko, kontzertu-sail berezia egin dute hainbat herritako aretoetan. Txorierrin ere izan dira, Baserri Antzokian hain zuzen ere. Aretoa zalez bete zen, eta horiek modu intimoago batean gozatu ahal izan zituzten taldearen musika, energia eta proposamen berriak.

tzertu kontratatuta ditugu ekainerako. Ziur asko, kontzertu gehiago aterako dira, jai-batzorde batzuk beranduago hasten direlako jaiak prestatzen, adibidez, irailetik aurrera ospatzen direnak. Guk, normalean, hilabete pare bateko geldialdia izaten dugu neguan, baina kontzerturik irteten bazaigu, kontzertua egiten dugu.

«Ehoziri-lanik» egin behar?

Batzuetan, bai; esate baterako, zapatu batzuetan bi emanaldi egin behar harko ditugu ekainean; edo barikutik astelehenera arte egun guztietan izango dugu kontzertua.

Gainera, zuenak hiruzpalau orduko kontzertuak dira.

Bueno, kontzertuen iraupena murriztu egin da aspaldi honetan eta, baten batek lau orduko kontzertua egiteko eskatzen jarraitu arren, gaur egungo joera da hiru orduko kontzertua egitea, gero dj-aren txanda delako. Esan beharra dago alde horretatik gure baldintzak hobetu egin direla, lehen festa guk amaitzen genuelako, eta ordu txikiak arte jo behar; gogorra zen. Niri asko gustatzen zait kontzertuaren ondoren herrian gelditu eta giroa ezagutzea; egin dezaket orain.

Lehen aipatu duzun bezala, berrikuntzak sartu dituzue ikuskizunean, zeintzuk?

Lehenengo eta behin, kanta-errepertorio osoa aldatu dugu, eta 32 abesti

Sasoitsua

Kassen esanetan, sasoi onean dago erromeria. "Duda barik. Erromeria asko egiten dira, eta erromeria-talde anitz daude. Gainera, talde horietako askok ibilbide luzea dute: Xabik, Garilak 26k, Zirkinik Bezek... eta Akerbeltzek ere bai. Herri guztietan programatzen da erromeria eta poztekoa da. Bestalde, dj-ak modan daude, eta hasieran pentsatzen nuen, agian, kaltea ekarriko zigutela, baina ez da horrela gertatu. Izan ere, erromeriak oso ondo funtzionatzen du: zuzeneko musika da, konexioa dago publikoaren eta musikarien artean, elkarrireragiteko aukera dago... Oso indartsu gaude".

Hain handia da Akerbeltzek publikoarekin duen konexioa, ezen jarraitzaile sutsuak ere baitituzte, plazaz plaza jarraitzen dietenak. Oso bitxia iruditzen zaigu, eta batzuetan ardura apur bat ere ekartzen digu, gure buruari galdetzen diogulako beti kontzertu antzekoa ikustean aspertzen ez ote diren. Edozelan ere, ilusio handia egiten digu, gure lana gustuko duen jendea dagoelako eta euren babesa dugulako".

berri ikasi, zenbait talderen abestien pot-pourriak joko ditugulako. Ekipo osoa ere aldatu dugu: anplifikadoreak baztertu eta gitarrarako eta baxurako pedal zehatz batzuk sartu, bateriarako pad bat, soinu elektronikoa... Era berean, keina egiten diegu erritmo latindarrei, LGTBI komunitateari lotutako kantei; autotunea ere sartzen dugu... Hori guztia erromeriaren esentzia galdu gabe, ez dugulako orkestra bihurtu nahi. Zentzu horretan, orain arte egindako kontzertuek aukera ekarri digute jakiteko zerk funtzionatzen duen eta zerk ez, eta beharrezkoa izanez gero, aldaketak egin. Berzia izango da, kontzertu batetik bestera aldaketak egongo direlako, beti ere herri edo publiko bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Modak erromeriara ere ailegatu dira?

Azken batean, txosnetako musika aldatu egin da, eta tabernetako musika ere askotariko da; euskal musika urbanoa egiten da, musika elektronikoa ere modan dago... Guk pentsatu genuen hori



guztia erromeriara eramaten ez bazen, beharbada, beldurratik zela edo tekniki zaila delako; eta erabaki genuen gure ikuskizunetan sartzen saiatuko ginela, baina, lehen esan moduan, iparra galdu gabe. Nire ustez, ona da, ze euskal musika gero eta askotarikoagoa da eta, horri dagokionez, tabu guztiak gainditu dira: hori hain zuzen erromerian ere plazaratu nahi dugu. Halaber, ustekabeko faktorea da publikoarentzat, ez duelako halakorik espero, eta bere onena ematen du.

Nolanahi ere, abesti batzuk beti jo beharko dituzue...

Jakina! *Sarri sarri*, *Lokaleko leihotik*, ETSen edozein kanta, *Otra noche*, Gatiburen abesti asko... Eta Zetaken *Itzulera* ere derrigorrezko bihurtu da. Eta ez pentsa: gertatu zaigu abestiren bat erreperthoriotik kendu, hura jotzen aspertuta gaudelako, eta gero publikoak abesti hori eskatu izana (kar-kar).

«Lur orotako» musikariak izan behar duzue?

Bai. Inprobisazioa batzuetan beste batzuetan baino hobeto irteten da; hala ere, behin agertokian zaudela, motibatuta, eta zure eta publikoaren arteko konexiorik badago, giltzarria da inprobisazioa. Kontzertu eta herri bakoitza ezberdina da, eta jakin behar duzu hango publikoaren gustuetara moldatzen, eta behar izanez gero, erreperthorioa aldatu. Beste alde batetik, eta azpiegiturei dagokienez, alde handia dago, esaterako, hiriburu batean jotzearen eta herri txiki batean jotzearen artean: lehenengoko agertokia itzela da, beharbada, eta bigarrenakoa, txiki-txikia;

baina azken horrek egundoko ahalegina egin du zu kontratatzeke, eta ederto dago.

Zein da 15 urtean plazaz plaza ibiltzeko sekretua?

Hori galdetzen diet nik gainerako taldekideei, ze orain ditugun baldintzak ez dira hasierakoak; orain asko zaintzen gaituzte. Nik uste dut taldekideak oso erromeriazaleak direla, zeren, egia esan, honekin bakarrik ezin baita bizimodua atera. Publikoa ere giltzarria da, oso polita delako haiekin konektatzen zarenean eta zugana hurbiltzen direnean esatera zure lana asko gustatzen zaiela. Askotan eguna alaitzen dizute, benetan.

“Soinu elektrikoak sartu ditugu, autotunea, soinu latindarrak... baina esentzia galdu gabe”

“Agertokian zaudela, motibatuta, eta zure eta publikoaren arteko konexiorik badago, giltzarria da inprobisazioa”

“Batez ere aurpegiak eta begiak marg

t: Itxaso Marina


Aititek kutsatu zion margotzeko grina. “Pintura-eskolara joaten zen eta egun batean galdetu zidan ea berarekin joan nahi nuen. Sei urte-edo nituen garai hartan, eta asko gustatu zitzaidan esperientzia. Gainera, unibertsitatean ere margolaria izateko ikasketak egin ahal nituela esan zidanean, ez nuen birritan pentsatu”. Arte Ederretako fakultatean hasi da aurtengo ikasturtean. “Gogorra izan da hasieran, margolaritzan ez ezik, hainbat arte-motatan saiatu behar da eta: eskultura, arte-teknolo... Ikasgaieiz gainera, asko ikasi dut nire buruari buruz zein ikaskideei buruz. Izan ere, euren lanen bidez jakin izan dut nolakoak diren, nola sentitzen diren, zein esparrutan gailentzen diren...”

Margolaritzak erabat erakartzen du, “pintzela erabilia, margo-pote bat hainbat estilotako margolan bihurtu daitekeelako. Era berean, margolanaren bidez sentimenduak helarazten dizkiozu ikusleari eta hausnartzera bultzatzen duzu. Nire ustez, inportanteena da ikusleek zerbait sentitzea, hori onerako ala txarrerako izan”. Errealismoa lantzen du. “Batez ere aurpegiak eta begiak margotzen ditut, asko transmititzen dutelako. Paisaia errealista bat oso polita izan daiteke, eta harekin loturaren bat baduzu, oroitzapenen bat, esaterako, etorri ahal zaizu gogora; begiek eta aurpegiaren espresioak, ordea, beti-beti transmititzen dute zerbait. Eguneroko bizitzan konturatzeko zara horretaz, eta mihihera eramatea lortzen duzunean egundokoa da. Nik batez ere erretratuak egiten ditut”.

Inspirazioa egunerokotasunean topatzen ditu. “Beti ibiltzen naiz argazkiak egiten. Lagunekin izaten banaiz, eta, adibidez, argiztapena gustatzen bazait, argazkia egiten diet, gero erretratu margotzeko. Gainera, koadroak gogorarazten dit momentu horretan lagunekin nintzela... Interneten ere bilatzen dut zer margotu. Margolanak egiteko, olio erabiltzen dut, koloreak lausotzeko edo nahasteko orduan aukera handiagoa ematen dutelako. Beste abantaila bat da koloreak sikatzen direnean tonua ez dela aldatzen”. Mar-

IZARO SAUTO CENTENO | margolaria

Hemeretzi urteko loiuztarrak ume-umetan erabaki zuen lan-ibilbidea margolaritzan egiten saiatuko zela. Estiloa eta teknika biribilduz joan da urteetan, eta gaur egun izugarri gozatzen du erretratoak mihihera islatzen. Bere lana ezagutzeko aukera izan genuen Loiuako Arte eta Kultura Azokan.



golari kutuna du: Modesto Trigo. “Kasualitatez ezagutu nuen Madrilgo Natura Zientzien museoan nengoela. Margolari hiperrealista da eta bere lanak ikaritzen nau, ez dakizulako argazkia ala margolana den: nahiz eta kuadrora asko hurbildu, ez duzu ezta pintzelkada bat ere ikusten”.

Hitzik gabe

Bere hitzetan, artea da bizitzeko modua; sentimenduak eta momentuko egoera hitzik gabe helarazteko era bat. “Koadro bat ikusita badakigu artista momentu hartan zelan zegoen”. Erakusketak egiteko irrikan dago eta gustatuko litzaioke margolaritza bere ogibidea izatea. Hala ere, uste du margolarien lana ez dela behar moduan baloratzen. “Niri aurrekontua eskatu didate gizarte-sareen bidez, baina prezioa adierazi dianeanean ez dut berriro euren berririk izan. Edo museora joaten zara eta baten bati entzuten diozu koadro bat edo bestea ez dela hainbesterako. Koadro bat ikusten denean, bakarrik

“Inportanteena da ikusleek zerbait sentitzea, hori onerako ala txarrerako izan”

emaitza hartzen da kontuan eta ez zaie erreparatzen atzean dauden lan-orduei, materialen prezioari, lortu den errealismoari... Ez da artistaren begietatik ikusten. Nik batez beste 30 ordu inguru ematen ditut erretrato bat egiteko. Erretrato handiak egitea gustatzen zait, urrunetik hobeto ikusten direlako eta hurbiltzeko aukera ere ematen dutelako”.

Ikuslea artista denean, beste begirada batetik heltzen zaio lanari. “Bestearen lanari erreparatzen diogu, hau edo bestea zergatik egin duen horrela, edo nola... Beste alderdi batzuk baloratzen ditugu. Niri gustatzen zait koadroan topatzen saiatzea artistari zer gustatu ez zaion, edo

otzen ditut: asko transmititzen dute”



beste modu batean zer landuko zuen. Izan ere, margolana egiten dugunean beti dago zerbait gehiago lantzea gustatuko zitzaiquina, edo beste modu batean jorratu... Batzuetan ez du ezertarako balio hainbeste galdera edo hausnarketa egiteak, baina beste batzuetan laguntzen digu artista eta bere kezka hobeto ezagutzen”.

Hainbat arte-diziplina ezagutzen dabil loiuztarra, eta etorkizunean margolaritzan ibili nahiko lukeen arren, ez du baztertzeko beste diziplina batzuk ere jorratzea. “Artistok zabalik izan behar dugu denetara, lanak nahastu edo uztartu ahal direlako: esate baterako, margolanarekin batera hura nola egin duzun azaltzen duen bideoa ipintzen baduzu, lana erabat aldatzen da, eta marrazkigintzako bozetoak ere eskultura bihurtu daitezke”. Gazteak pertsona guztiak animatu nahi ditu margotzera eta, lehenengo aldia txarto ateratzen bazaie, euren buruari aukera gehiago ematera. “Margolan on baten

atzean daude saiakera asko eta batzuk txarrak baino txarragoak dira. Hala ere, lan txar asko egin ezean, ni ez nintzateke orain hemen egongo”.

Ikusgai egiteko garrantzia

Izaro eta bere familia duela urte bi etorri ziren Bilbotik Loiura bizi izatera. “Pisu batean bizi ginen lehen, eta etxe batean orain. Loiun ez dago zaratarik eta txorien txioak entzuten dira edonon. Hortaz, bizi-kalitatea irabazi dugu”. Gaztea erabat integratuta dago herrian, eta Loiuo Bakarrak elkarteko kidea da. Martxoan egindako Arte eta Kultura Azokan hartu du parte, antolatzaile zein artista moduan. “Pozpozik gaude, ez genuelako espero azokara hainbeste lagun hurbiltzea. Datorren urtean berriro antolatzeko gogotsu gabilta”. Bere iritziz, oso garrantzitsua da herrietan halako ekimenak egitea. “Konturatu gara Loiuo artista asko ditugula, baina ez genekien horiek zer egiten zuten. Kontua da jendeak ez duela bere zaletasunen edo trebetasunen berri emateko ohiturarik eta azokari esker ezagutu dugu bakoitza zertan dabilen; eta sorpresaren bat hartu ere bai”.

35 urtez, ekin eta ekin euskeraz!

Euskaltegia abian jarri

Euskera ikasi eta lantzeko zentro publikoa 1987-1988 ikasturtean hasi zen jardunean Txorierriko Euskaltegia izena harturik, 50 ikasle eta 4 langilerekin batera. Hasieran, Derio, Sondika eta Zamudioko udalek bultzatuta sortu zen, beren- beregi eskualdean euskera eskolak ematearren. Ostean, behin Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea eratutakoan, Larrabetzu, Lezama eta Loiuko udalek ere bat egin zuten abian jarritako euskalduntze eta alfabetatzeko zerbitzu publikoarekin.

1991n eta 1994an Mankomunitatearen ekimenez eta HABEren babespean, euskaltegirako langileak kontratatzeke lehiaketa-oposizioak deitu ziren. Artean Txorierriko Euskaltegia zenak Txorierriko Udal Euskaltegia izena eta izaera juridiko-administratiboa hartu zuen eta Eusko Jauritzaren HABE erakundeak udal euskaltegien erregistroan jaso zuen. Hasierako urteetan, eskolak arrastiz ematen ziren udalek utzitako lokaletan, eta batez ere Derioko Herriko Plazan, "medikuarenean".

1994. urtetik aurrera, ikasleen matrikulazioak nabarmen egin zuen gora. Hori ikusita, herritarren eskaerari garrantziaz erantzuteko eta zerbitzua berriaz egituratzeko, Txorierriko Mankomunitateak Txorierriko Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoa legez eratzea erabaki zuen, bere aurrekontu eta funtzionamendu eta guzti. Harrezkero, euskaltegiak egoitza nagusia Derioko Udalak utzitako udaletxepeko lokaletan dauka.

Garatu eta sendotu

Erakunde sortu berriaren Estatutuetako 3. artikulua zioenez, helburua zen "Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu udalerrietan helduen alfabetatze eta euskalduntzea, baita euskera sustatu eta garatzeko behar diren zerbitzuak eskaintzea, eta Mankomunitateak hizkuntza politikaren arloan agintzen dion edozein jarduerara egitea ere." Bertan zehaztutako xedeari helduta, Mankomunitatearen Euskera Zerbitzua ere, orduantxe eratu zen.

1987. urtetik hona 3500 herritar inguru hurreratu dira Txorierriko Udal Euskaltegira. Gainera, azken urteetan izena

TXORIERRIKO UDAL EUSKALTEGIA

1987-1988 ikasturtean hasi zen Txorierriko Udal Euskaltegia eskualdeko herritarrek euskalduntzen eta alfabetatzen, euskera landuz eta zabalduz. Aurten, 35. urteurrena ospatuko du; hori dela-eta, hainbat ekitaldi egingo ditu maiatz-ekainetan.



emandako ikasleen kopurua nahiko antzekoa izan da: 225-250 lagun, aurreko ikastaldeetan nahiz autoikas-kuntza bidezko moduluetan.

Geure ibilbidean, eskaintza indartu eta zabaltzeko aparteko ahalegina egin izan dugu, betiere ikaslearen beharrezan ardatz hartuta: maila guztiak, ikastaro mota ugari, ordutegi zabala (goizeko 9etatik iluntzeko 9etara), helburu bereziei begirako ikastaroak, eskolaz kanpoko jarduerak, gainerako erakunde eta eragileekin elkarlanean sortutakoak...

Horrek guztiak sendotasuna eta berezko izaera ekarri dio zentroari, eta egun Txorierriko euskera ikasi eta lantzeko, errotutako zerbitzu publiko sano ezagutua da euskaltegia.

Egoera ezberdinetara egokitu

Izan ere, euskera ikaslearen profila, kultura maila, hizkuntzaren ezagutza, zuzentasuna eta egokitasuna, helburuak, motibazioa, erabilera... aldatuz doaz, urterik urte. Egoera berriak azaldu zaizkigu, ikasleen beharrezan berrietara etengabe



egokitza bideratu gaituztenak: gazte-txuak, gazteak eta helduak, erretiratuak, unibertsitarioak, dendariak, ostalariak, seme-alabei ikasketetan lagundu nahi dieten gurasoak, enpresetako beharginak, administrazio publikoetako langileak, irakasleak, lan egiteko eta bizitzeko aukera duinak edota hobeak izatearren hainbat herrialdeetatik datozkigunak: Gaztela, Kantabria, Andaluzia, Errioxa, Argentina, Mexiko, Maroko, Brasil, Costa Rica, Errumania...

Sasoian sasoikoa diosku esaera zaharrik; garai berrietara moldatu eta horren

arabera eskolak atondu, horixe geure zeregina. Horretan, esperientzia handiko euskaltegia gara eta hainbat baliabide eta metodologia berri erabiltzen ditugu. Irakasleok ikasleen benetako beharrianak ditugu ardatz eta ikasleen parte hartzea bilatzen dugu eskolak eragingarriak, jostagarriak eta atseginak izan daitezzen. Lehenengo egunetik bertatik euskeraz berba egiten hasten da ikaslea gurean, ikasgela barruan nahiz antolatzen ditugun eskolaz kanpoko jardueretan. Halan da ze, beti saiatzen gara esparru informalak ere

bilatzen eta lantzen, ikasleek euskera lotsa barik eta testuinguru ezberdinetan erabil dezaten. Ebaluazio jarraitua erabiltzen dugu eta horren bitartez ikaslearen aurrerapena aldian-aldian neurtzen dugu, ikasleari bere ikasprozesuan laguntzeko.

Aurrerantza begitu

Aurrerantzean ere, Txorierriko komunitateari zerbitzua eskainiko diogu: ez dakienari irakatsi, egunerokoan euskeraren unibertsoan partaide izan eta bertan eraz eta erraz sar dadin; dakienari, euskera lantzen eta aberasten lagundu, berbaz eta idatziz, euskerari berez- berez ekin diezaion.

Egun bizi dugun hizkuntzaren errealtatea anitza, konplexua eta aldakorra da. Txorierrin eta Euskal Herrian eskualdez eskualde dugun egoea soziolinguistikoa, jendarteak duen euskeraren pertzepzioa eta baliospena, ezagutza mailak, eta batik bat kaleko neurketek emaniko erabileraren inguruko datuak aztertuta, agerikoa da badugula zereginetan.

Irakasteaz gain, euskera gehiago eta gehiagotan erabiltzeko egin dezagun indar, erakundeak eta eragile guztiok elkarrekintzan ibiliz. Hitzek ekiteko garaia dela esan berri digu Euskaraldiak azken edizioan; eta horretarako hiztunak behar ditugu. Euskerak, Txorierrin, edonon eta edonoiz egoera guztietara egokitzen dakiten hiztunak behar ditu, ahaldunduak, euren hizkuntzaz egin eta idatziko dutenak. Berbaz ekiteko sasoia da.

Eskerronez... eta ospakizunez

Bakoitzari berea, horixe baita legea, eta Txorierriko Udal Euskaltegiak egindako ibilbidean bidelagun izan zaituztegun ikasle, irakasle, langile eta lankide horiei guztiei eskerrak ematen dizkizuegu.

Zuok denok gogoan, zuen omenez eta zuei eskerronez.

Txorierriko Udal Euskaltegiak 35 urte beteko ditu ekinean hasi zela, eta hori ospatzeko ekitaldiz betetako egitarau zabal bat atonduko dugu: bisita gidatua, mendi ibilaldia, berbaldia, musika... saio ugari maiatz- ekainetan hurreratuko zaizkigun guztientzat. Laster izango duzue horren berri. Bitartean, badakizue, euskeraz egin eta eragin! Izan be, ekinean gabiltzan artean gara-eta.

ERDU GEUGAZ!

Errotarriak



Oketa-Etxagueneko harrobi bat

Orozko herria igaroko dugu eta Ibarantz joango gara. Han, Urigoitiko errepidea hartuko dugu. Kilometro pare batera, Usabel errotan, asfaltoa utzi, eta zementuzko bidea hartuko dugu Belaustegiko aparkalekuraino; bide es-tua da eta kontuz ibili beharko dugu. Handik oinez jarraituko dugu pista eder eta bakarretik, Austingarmingo artzain-bordetaraino. Eskuineko lurrezko pis-tatik, sigi-sagan, Oderiaga mendiko tontorreraino helduko gara. Adi egon: tontorra ez da hasierako haitz-multzoa; apur bat aurrerago dago.

Han gaudela, iparralderantz 50-100 metro jaitxi, eta 10 edo 12 errotarri ikusi ahalko ditugu; haietako batek be-hintzat erdiko zuloa eta guzti du. Eta hegoalderantz egiten badugu, beste



Berretin iparraldeko maldan

t: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxaka

Edozein herritako azokan ohikoa da taloa eta txistorra jatea. Taloa egiteko, arto-irina behar da, eta hori lortzeko, arto-garauak errotara eroan eta bertan irindu. Errotarriak, gure gaurko gaia, ezinbestekoak dira horretarako.

Lorategietan, apaingarri moduan, errotarriak ikustera ohituta gaude, eta batzuetan mahaitzat ere erabiltzen dira; eta beharbada, inoiz errotan ere ikusi ditugu lanean... Baina non egiten ziren? Errotan inguruan? Bada, ez. Mendi zehatz batzuetan egiten ziren, eta narrak eta gurdiak erabilia errotetaraino eroan. Azken urteetan, Euskal Herrian hainbat errotarri-harrobi agertu dira. Gorbeia

inguru da mundu osoan ezagutzen den zeru azpiko tailerrik handiena: 147 harrobi agertu dira, eta 600 errotarri inguru, bertan utzitakoak, amaituta ez daudelako edo apurtu zirelako. Baina, zenbat mila errotarri egin ziren? Izan ere, itsasotik ere esportatzen ziren.


Errotarri batek 15 dukat inguru balio zituen XVII. mendean; beste modu batean esanda: 12 ardi beren kumeeekin edo 7.000 teila. XIX. mendearen erdialdean 350 erreal balio zituen, eta XX. mendearen erdialdean, 4.000 pezeta. Oso preziatuak eta garestiak ziren. Ez zegoen neurri estandarrik eta errota bakoitzak bere neurria zuen. Errotarriak 15 edo 20 urte inguru irauten zuen, eta gastatzen edo apurtzen zenean, beste bat agindu behar

zen. Dena ondo joanez gero, harginak astebete edo bi aste behar zituen mendian errotarria egiteko. Ondoren, errotaraino garraiatu behar zen.

X. mendean jada egiten ziren errotarriak Gorbeia inguruan. Bertan 45-150 cm-ko diametroko errotarriak aurkitu dira; txikiak zaharrenak ei dira. Errotarriak egiteko, gehienbat hareharria erabiltzen zen (kareharria gogorragoa den arren, labainkorragoa da).

Harrobiak eta errotarriak ikusteko, Gorbeia ingurura joatea da onena. Etxaguen auzotik (Zigoitia) ondo markatutako ibilaldi polita dago Oketa mendi inguruan. Guk Oderiaga mendikoa, Orozko aldetik, proposatu dugu orrialde hauetan.

Ibilbide proposamena



horrenbeste. Merezki du harrien artean paseatzea eta garai bateko harginak bertan lanean imajinatzea.

Aukera bi ditugu itzultzeko. Errazena da etorri garen bidetik itzultzea, eta bestea da mendilerrotik jarraitzea beherantz eta aurrean Ubixeta mendia eta ezkerrean Urkisiako artzain-borda ditugula eskuinera egitea. Zailtasuna topatuko dugu: ez da erraza bidezidorrari jarraitzea eta aldapa handia da, pixka bat arriskutsua leku batzuetan; kontuz ibiltzeko lekua da, beraz. Ukulugorta artzain-bordako aztarnetara helduta eta arrisku gutxiago egon arren, zailtasunek jarraituko dute. Azkenean, larreetatik paseo polit batez gozatzeko aukera dago hasieraraino. Guztira ia bederatzita kilometro egingo ditugu.





“Ziurgabetasuna gure DNAREN parte da”

t: Itxaso Marina / a: Son Aoujil

Zergatik aukeratu zenuen antzerki independentea?

Antzerkigintzan 90eko hamarkadan trebatu nintzen. Garai hartan gaztetxeen goraldia izan zen eta lana gaur egun baino askoz kolektiboagoa zen. Antzerki independentearen munduan jarraitu dut, egiletza eta askatasuna ematen dituelako, eta norberaren proiektuak hautatzeko aukera. Bestalde, egia da antzerki-konpainia independente batean lan egiteak hainbat arduratan ibili behar izatea dakarrela: zamaletan, zuzendari-letan, sormen-prozesuan... Nolanahi ere, konpainiak lan gehiago du gaur egun, eta horrek ekarri du kideok arlo batean edo bestean apur bat gehiago zentratzea; adibidez, ni gehienbat aktore-letan nabil orain. Dena dela, arte eszenikoak iraupen-lasterketa dira.

Zergatik?

Batzuetan lana dagoelako, eta beste batzuetan, ez. Gainera, zure burua ondo kudeatzen ikasi behar duzu, eta, honetan iraun ahal izateko, jakin arrakasta eta porrota ogibideko parte direla. Are gehiago, baliteke beste lan bat ere eduki behar izatea, egonkortasun apur bat gehiago izateko... Ni, esate baterako, pilates-irakasle nabil pilates-, dantza- eta judo-estudio batean, eta aurretik dantza eta antzerkia irakatsi diet umeei, plazaz plaza ibilia naiz umeentzako antzezlanak egiten, operako figurantea izan naiz, pelikularen batean agertu...

Duela 13 urte Khea Ziater konpainia sortu zenuen Alex Gederiaga zuzendariarekin batera.

ARRATE ETXEBERRIA ORTUONDO I aktorea

Sondikoztarrak ibilbide luzea egin du antzerki independenteko aktore moduan, eta Khea Ziater konpainiaren sortzaileetako bat da. Agertokian hainbat pertsonaiarena egin du. Berarekin lanaz mintzatu gara, sektorearen egoeraz eta helburuz. Oihalak gora egin dezala, beraz!

Zinemagintzaren eta antzerkigintzaren arteko harreman-kodigoak ikertzen ditugu. Hortaz, antzezlanetan gauza batzuk bideoen bidez kontatzen ditugu, eta zuzenean gertatzen denarekin uztartu. Era berean, beste produkzio-mota batzuen bila ibili ginen duela urte batzuk, eta oso *talk show* dibertigarri bat sortu genuen: *Los visitantes*. Zeremonia-maistrak –neukigidatuta, kulturaren hainbat alorretako artistak batzen ziren agertokian, gai baten inguruko gogoetak egitera, eta oso dibertigarria zen, zati batzuek gidoiari jarraitzen zioten arren, inprobisaziorako tarte ere bazegoelako. Gure produkzioez gainera, Arriaga antzokirako produkzioak ere egiten ditugu.

Pertsonon sentimenduak eta pentsaerak dituzue zuen ekoizpenen ardatz; lan pisutsuak dira.

Bai, programatzaileek eta publikoak berak hala esaten digute askotan, baina jorratzen ditugun gaiak bizitzaren parte dira azken batean. Guk guztiok ditugun sentimenduak eramaten ditugu agertokira, modu gogorrean beharbada, baina beti saiatzen gara adierazten tunelaren amaieran argia dagoela.

Zein izan da heldu diozun pertsonaiarik gogorrena?

NOT never on time antzezlanaren protagonista, Isabelle, bizitzan egon daitekeen galerarik handienari aurre egin behar dion pertsonaia delako; gogorra izan zen.

Eta kutunena?

Nire pertsonaia guztiak maite ditut nik. *Faces* antzezlanaren, esaterako, John Cassavetes zuzendariaren filmaren egokitzapena da eta bertan Maria Forsten papeira antzezten dut. Generoari lotutako alderdiak jorratzen dira lan horretan, eta emakume protagonisten errealitatearen sormen-prozesua oso gogorra izan zen.

Nahiz eta paper bakoitzak bere berezitasunak eduki, haiek prestatzeko orduan, komuneko teknikari edo pautei jarraituko diezu, ezta?

Gidoia ahalik eta arinen jasotzea gustatzen zait. Pertsonaia oso modu teknikoan lantzen dut hasieran, eta emozionala amaierarako uzten dut. Aktoreok gustuko dugu intuizioari jarraitzea eta dena lehen aldiz ondo egitea, baina konturatu naiz inportanteena teknika dela; gero landu eta sentitzen da.

Taula gainean 31 urte daramatzazu; oraindik baduzu «tximeletarik» sabelean?

Beti. Agertokira irten baino lehen, nork bere errituala egiten du. Nik kon-

“Antzerki independenteak egiletza ematen du; norberaren proiektuak hautatzeko aukera”

“Zure burua ondo kudeatzen ikasi behar duzu, eta jakin arrakasta eta porrota ogibideko parte direla”

“Oso sentimendu sakonak taularatzen ditugu, baina tunelaren amaierako argia ere adierazita”

“Pertsonaia oso modu teknikoan lantzen dut hasieran, eta emozionala amaierarako uzten dut”

tzentrazioa eta publikoarekiko errespetua hartzen ditut oinarritzat, diru mordoa ordaintzen dutelako antzezlanak ikusteko. Lan fisiko handia egiten dut: arnasketa lantzen dut, tai-chi, txeloa baintz moduan afinatzen dut nire burua... Eta gero, agertokira ateratzen naizenean eta publikoari aurre egin behar diodan lehen momentu horretan sentimendu pertsonalak azaleratzen dira eta gogora etortzen zaizkit; nire momentua da. Dena den, teknika asko daude publikoaren aurrean ipintzearen beldurra gainditzeko eta agertokian asko disfrutatzen.

Nola dago antzerkiaren mundua?

Oso momentu delikatu batean: prekaritate eta ezegonkortasun handia dago.

“Umeez heziketatik eta kontsumotik hurbildu behar dira antzerkira, nork bere buruari aurre egiteko modua da eta”

Beste aldetik, uste dut publikoa sustatu eta berri behar dugula, hura galdu dezakegun susmoa dut eta. Antzerkia eta dantza dira kultura, eta, nire ustez, umeez heziketatik eta kontsumotik hurbildu behar dira haiengana, nork bere buruari aurre egiteko modua da eta. Gustatu ala ez gustatu, antzezan batek beti eragiten dizu zerbait. Era berean, inportantea da antzerkigileok eta aktoreok plataforma seguruetatik lan egitea, guneak sortu ahal izateko, prekaritatea albo batera uzteko eta inbaditzaileagoak izan gaitzen.

Winona&Grace hainbat aretora eramango duzue datozen hilabeteotan; zu zuzendaritza-laguntzaile ibili zara



bertan. Zeintzuk dira konpainiaren asmoak edo helburuak?

Beste proiektu bat dugu buruan. Guk lanean jarraitu nahi dugu, gure ekoizpenak sortu eta emanaldi gehiago egin. Izan ere, oso inportantea da antzezanak, pro-

Bizitzaren kasualitateak

Etxeberría (Getxo, 1973) kasualitatez ailegatu zen antzerki-mundura. “Orain, hausnarketa eginda, konturatu naiz txikitik modu batean edo bestean banuela antzerkirako bokazioa, baina, egia esan, patuak ekarri ninduen mundu honetara. Batxilergoa amaituta, Ingalaterrara joan nintzen ingelesa ikastera eta *au pair* moduan lan egitera. Itzuli nintzenean esan zidaten la-

gun baten lagunak, Mandrágora Teatro konpainiakoak, aktore bat behar zuela kaleko antzezan batean ordezkapena egiteko; animatu nintzen. Gainera, dantzari lotutako beste kaleko antzezan bat ikusi nuen handik gutxira, eta «ikuspen» antzeko bat izan nuen. Antzerkia asko gustatzen zitzaidala ohartu nintzen; hala ere, ez nuen tresnarik eta erabaki zuen antzerkigintzan trebatzea”.

Getxoko Antzerki Eskolan eta Be-goña Zabalaen dantza-eskolan ikasia da. “Lehen ez bezala, orain prestakuntza araututa dago; guk, berriz, hainbat motatako ikastaroak egiten genituen eta aldi berean lan egiten genuen”. Etxeberriak ibilbide luzea du antzerki-munduan eta ibilbide horretan hainbat konpainiatan izan da, hala nola La Fábrica de Teatro Imaginarioan eta Ander Lipusen konpainian. Era berean, zortzi urtean gune ez konbentzionaletako emakume nerabeekin lan egin du Costa Rican, lan-trebatuntzarako programak garatzen; programa horietan dantza eta antzerkia baliatzen zituen. Gaur egun, Khea Ziater antzerki-konpainia independentearen partaidea da, eta orain arte 11 proiektu eraman dituzte taulara: haien artean daude *La canción de Gloria*, *MCTBH* eta *Monteverdi*, elkarrizketan aipatutakoez gainera.

Aktorea duela 15 urte etorri zen Sondikara bizi izatera. Nolanahi ere, beti eduki du harreman estua Txorierriekin, familia bertakoa delako. Are gehiago, bere aita Koldo Etxeberria da, Athleticeko futbolaria izan zena, Asuakoa.





*“Nire proiektuak
aukeratzen jarraitu
nahi dut, eta
lasai bizitzeko
beste izan”*

hau da, momentu batean edo bestean proiekturik ez badut, oso larrituta ez ibili. Hala ere, zentzu batean ohitu naiz horrela ibiltzera, gure sektoreak krisialdi guzti-guztiak pairatzen dituelako: ziurgabetasuna gure DNAren parte da. Batzuetan nekatzen naiz, ez pentsa. Ogibide polita da? Bada, bai. Eta proiektu batzuk ere beste batzuk baino politagoak dira. Baina, azken batean, ogibidea da. Pandemian geundela lan apur bat egin ahal izan genuen, eta gogoratzen dut behin poliziak gelditu gintuela. Dena zuzen zegoela egiaztatu ondoren, esan ziguten: *Ondo pasatu!* Eta nik pentsatu nuen: *Baina lanera goaz...* Bueno, esanak esan, gora antzerkia eta antzokiak bete ditzagun!

duktuak, ahalik eta gehien antzetzeta eta emanaldi-sare txikietatik ateratzea, emankorrak izan daitezten. Nolanahi ere, egia da konpainiaren barruko errealitatea beste bat dela eta ahal dena egiten dela. Adibidez, salmenta-arloa beste mundu

bateko liga da; asko nekatzen du. Gainera, zaila da Euskal Herritik kanpo ateratzera, ekoizpen asko daude eta.

Eta zureak, aktore moduan?

Nire proiektuak aukeratzen jarraitu ahal izatea, eta lasai bizitzeko beste izan;

Txorierri euskeraz, ekin eta ekin 35 urtez

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKARAREN ETXEA
(interpretazio zentro berritua)

DOAKO BISITA GIDATUA
(Bilbon-San Inazion)

NOIZ:
maiatzaren 4an eta 10ean

NORENTZAT:
denentzako aukera
(20 lagunentzako taldean)

IZEN EMATEA:
euskaltegiko bulegoan

Dena prest sanisidroez gozatzeko

San Isidroko jaiak ate joka dituzte Derion, eta hango udalak eta jai-batzordeak egitarau oparoa prestatu dute, herritarrek gozatu dezaten. Besteak beste, kontzertuak eta musika-emanaldiak izango dira, azoka, bazkariak eta umeentzako jolasak. Ekintzak elkarlanean antolatu dituzte Sutondoan, Odol Argia, Gure Señeak, Lainomendi, Deriocom eta herriko beste eragile batzuekin.

Pregoa barikuan, 19:00etan, irakurriko dute Herriko plazan, eta hala hasiera emango diete aurtengo San Isidro jaiak. Animazio berezia egongo da, eta txitxiburruntzia, hara hurbiltzen diren guztientzat. Gainera, Joselontxos fanfarrea kalez kale ibiliko da, herriko bazterrak musikaz girotzen. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira. Txosnaguneko agertokira igoko dira Ugerda eta lheskide musika-taldeak, eta haien atzean, Bidean erromeria-taldea, barikuko festa amaitzeko.

Zapatuan, txistulariak goizetik ibiliko dira herriko kaleak euren doinuekin alaitzen, eta Xaiborrek diskofesta egingo du Sollube kalean, 12:00etatik aurrera. Herriko kuadrillek bazkaria izango dute txosnagunean eta ondoren euren abilezia erakutsi ahalko dute haientzat prestatuko jokoetan. Bestalde, 19:00etan, txitxarrikoa

lheskide taldea. a: AZL



kafetegia-hamburgesaria
pozgarri

Gernikako Arbola, 4 (DERIO)
94 454 35 99

**ZIRIKADA
JATETXEA**

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1 DERIO

TXEPETXA aek ■ euskaltegia

ando pasa jaietan!
Eutsi euskaraz berba egiteko konpromisoari

aek
Gorbea kalea, 5
48160 Derio
944 543 967
607 59 87 94
txepetxa@aek.eus

tximintx
KOMUNITATEA

**DERIOZTARTU
ZAITEZIE!**

DERIOKO JAIAK

ISIDRO DEUNA 2023

MAIATZAK 12-15



12 BARIKUA

- 19:00 PREGOIA ETA TXITXIBURDUNTZIA
- 19:30-21:30 JOSELONTXOS TXARANGA Kaleetan zehar
- 21:00 ROCKALEAN Sollube Kalean
- 23:00 KONTZERTUAK

UGERDA, IHESKIDE,
BIDEAN
ERROMERIA

13 ZAPATUA

- 09:00 - 15:00 FRONTENIS TXAPELKETA
- 12:00 XAIBOR DISKOFESTA Sollube kalean
- 15:00 KUADRILLA BAZKARIA ETA JOKUAK
- 19:00 TXITXARRILLOA
- 19:00 MARABIYAK BIKE SOUND SYSTEM Txosnagunetik hasita
- 22:30 KONTZERTUAK

EZPALAK, LUKIEK,
NIKOTINA, DJ BRAVA

14 DOMEKA

- 10:00 - 14:00 XXVI. ELIKAGAI ETA ESKULAGINTZA AZOKA, Kultur Birika inguruan
- 11:00 - 14:00 FRONTENIS TXAPELKETA
- 15:00 HERRI BAZKARIA
- 16:30 BINGOA, YOGURINHA BOROVARERIKIN
- 18:00 EUSKAL DANTZAK LAINOMENDIREKIN
- 19:00 TXITXARRILLOA

15 ASTELEHENA

- 11:30 - 13:30 UME ETA GAZTEEN EKINTZAK
- 12:30 - 13:30 MARRAZKI LEHIAKETA
- 16:00 - 18:00 UME ETA GAZTEEN EKINTZAK
- 18:00 MARRAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
- 19:00 TXOKOLATADA eta "LOS TXIMBEROS" KONTZERTUA
- 19:30 JAI AMAIERA

Ostiral eta larumbatean: GAUEKO BUSA doan
Derioko auzoetatik (geldialdiak eskatzeko auzerak)

Antolakuntzak egitasia aldatzeko eskubidea izango du

SUTONDOAN, ODOL, ARGIA, GURE SEÑEAK,
LAINOMENDI, DERIOCOM eta beste askoren elkarlanean

LEKUA

- HERRIKO PLAZA
- TXOSNAGUNEA
- NAGUSIEN ETXE ONDOAN
- FRONTOIA



*Bariku eta zapatu
gauean autobus-
zerbitzua egongo
da etxera
itzultzeko*

izango da Nagusien Etxe ondoan, animatzen den guztiak dantza egin dezan, eta, ordu horretatik aurrera ere, Marabiyak Bike Sound System ikuskizunak girotuko ditu herriko kaleak. Zapatu gaueko kontzertuak talde hauen esku izango dira: Ezpalak, Lukiek eta Nikotina. Dj Bravak biribilduko du gaua.

Elikagai eta Eskulangintza azoka da Derioko jaietako ekintzarik nagusienetako bat, eta aurten 45. aldiz egingo da. Saltoikiak Kultur Birikaren inguruan ipiniko dira, eta azoka 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Txistuaren doinuek berriro ere alaituko dituzte herriko kaleak, eta 15:00etan herri-bazkaria egingo da txosnagunean. Haren ostean, 16:30ean, bingo berezia izango da Yogurinha Borobak gidatuta. Ohikoa denez, Lainomendi dantza-taldeak dantzen alardea egingo du Herriko plazan; saioa 18:00etan hasiko da. Domekan ere txitxarrilloa egongo da; 19:00etan hain zuzen.

Zaindariaren eguna astelehenean izango da, maiatzaren 15ean. Txistulariak txokorik txoko ibiliko dira goizean, eta 12:30ean meza nagusia egingo da. As-



Yogurina Borova

telehena jai-eguna izango da Derion, eta, beraz, ekitaldi-sorta zabala antolatuta da ume eta gazteentzat. Horrela, 11:30etik 11:30era, haientzako jolasak egingo dira txosnagunean, frontoian eta inguruko guneeetan. Horrezaz gainera, marrazki lehiaketa izango da frontoian, eta 16:00etatik 18:00etara ere ume eta gazteentzako jolasak izango dira lehen aipatutako lekuetan. Besteak beste, puzgarriak eta oreka-jolasak gozatu ahalko dituzte: slackline, malabareak... Marrazki lehia-

ketaren sariak 18:00etan banatuko dira frontoian, eta 19:00etan txokolatea banatuko da. Los Tximberos bilbainada-taldeak San Isidro jaietako azken orduak girotuko ditu.

Derion, azkenaldi honetan, ospatu diren jaietan bezala, bariku eta zapatu gauean autobus-zerbitzua egongo da etxera itzultzeko. Autobusa ordu erdiro irtengo da kiroldegiaren ingurutik, 01:00etatik 06:00etara, eta geldialdia egingo du Derioko auzoetan.

**Lainomendi
dantza-erakustaldia**

**Maiatzak 14
18:00etan
Derioko plazan**







electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO
t: 944 543 148



Arteaga ESTANKOA



Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio
Tel: 94 454 15 41
estancoderio@gmail.com

Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia
aurretiko hiltzordua

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160

0 km, batzen gaituen distantzia

Txorierriko hainbat euskaltzaleek totoan, hau da, talde-lanean, sortu zuten AIKOR! aldizkaria duela 22 urte. Gaur egun ere behar-beharrezkoa da totoan ibiltzea, bailarako euskara hutseko hedabide bakarrak aurrera jarrai dezan, eta hortaz, euskararen normalizazioan eragiteko, komunitatea errotu eta sendotzeko eta herrigintza aktibatzeko. Bertokoa ez ezik, gertukoa ere eskaintzen du AIKOR! aldizkariak, eta aikorlagunen babesa ezinbesteko du bidean zehar. Izan ere, 0 kilometro dago gure artean.

Sindikatik Larrabetzuraino, eta Loiu, Derion, Zamudion eta Lezaman geldialdia eginez, Txorierriko herri guztietan zabaltzen da AIKOR! aldizkaria, doan eta 11 hilabetetan. Botaldi bakoitzean 8.000 ale kaleratzen dira; guztira 320.000 orri hilero, edo 3.520.000 orri urtero. Webgunea ere badu: www.aikor.eus. Hori egunero elikatzen da eta paperak baino albiste eta argazki gehiago eskaintzen ditu. Era berean, batez beste, 6.000 bisitaldi ditu hilero eta erabiltzaileei aukera ematen die informazioa eurek sartu dezaten. Horrela, euskara bultzatzeaz gainera, txorierritarron sarea jostea helburu du AIKOR! aldizkariak, eta bertokoa, hurbila, indartu. Tokiko merkataritzak eta ostalaritzak ere lekua du egitasmoan, guztion ekarpenari esker eskualde bizi dugu eta.



Azken urteak nekezak izan dira herritar guztiontzat, eta gertaerek kazaritza ere eduki dute eragina. Papera asko garestitu denez, AIKOR! Txorierriko aldizkariaren inprenta-gastuak, esaterako, 1.000 euroko igoera izan du hilero; 11.000 euro, urtero. Horrezaz gainera, zabalkunde-gastuak ere gora egin du: 580 euro gehiago hilean, 6.380 euro gehiago urtean. Eta zer esanik ez, bizitza bera ere asko garestitu da

norbanako bakoitzarentzat eta familientzat.

Testuinguru honetan, zenbait sustengu behar ditugu AIKOR! aldizkariaren bizitza duintasunez luzatu ahal izateko, eta haien artean oso baliotsua da zure laguntza. Horregatik, egitasmoaren parte izatera animatzen zaitugu, eta totoan bertokoa eta gertukoa sendotzen jarraitu. 0 kilometroak batzen gaitu, eta komunitate irmoa bihurtu.

IZAN
aikor!
lagun

Izen-abizenak: _____

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: _____

Helbidea: _____

e-posta: _____

Telefonoa: _____

Urteko kuota, 40 €: _____

Beste bat: _____

Kupoa bete eta hona bidali:

AIKOR! aldizkaria
Aresti kalea 2, behea
48170 – Zamudio

Bestela, mezua bidali:

747 406 561

Bestela, sartu:

www.aikor.eus

15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, balio gabetu eta zuzendu ahalko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko dizuz: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

IZAN aikor! lagun

Neurea, geurea.

**GAIZKA
GARITANO**

“Aikor! aldizkariak Txorierriko lekuak, historia eta ohiturak ezagutzera ematen dizkigu euskaraz.”



Musaren errege-parea

Musa oso joko euskalduna da. Eta Lezaman maisu bi ditugu: Igor Serrano eta Igor Amarika. Lagunak dira eta betidanik jokatu dute elkarrekin. Gaur egun gaztetan baino gutxiago aritzen dira musean, baina azken hamar urteotan ez dute Euskal Herriko Txapelketa inoiz galdu. Aurten, gainera, finala jokatu dute. Haiek dira gure errege-parea.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Igor Amarika lasaiagoa da eta Igor Serrano, berritsuagoa eta ausartagoa. "Berak partidak galtzen ditu; baina irabazi ere", dio Amarikak. "Normalean ondo ateratzen da, baina batzuetan ez (kar-kar). Bizkaiko txapelketan, esate baterako, txarto atera zen: ni azkena izanda, hordagoa bota ziguten jokoa, nik 31koa nuela. Bikotekideak ez zuen onartu nahi, baina azkenean onartu eta galdu egin genuen. Nik uste dut karta onak badituzu, hordagoak onartu behar direla, hau da, aukerak ez dira alferrik galdu behar; bestela, geroago, damutu egiten zara", esan du Serranok.

Dena dela, ondo moldatzen dira elkarrekin. Gaztetan futbolearen ere jokatu zuten elkarrekin, Uritarra Larrabetzuko taldean. Eta musean ibilbide luzea eta oparoa dute, herriko txapelketa guztiak irabazi dituztelako. "Batzokioa aitzak birritan irabazi zuen eta guk, hurrengo urtean. Finala aitari irabazi genion eta 5 eta 0 irabazten ibiltzen ginela, aitak joko bat irabazten uztea eskatu zidan, baina nik esan nion ezetz; bestela, galtzeko arriskua genuelako (kar-kar). Irabazi genuen eta aitak zorionak eman

zizkidan. Musean, lagunik eta seniderik ez!", adierazi du Serranok barrezka.

Gazteak zirela, sarritan jokatzeko zuten musean. "Zapaturu 16:00etan gelditzen ginen eta arratsalde osoa ematen genuen jokatzeko. Lehen txapelketa gehiago zegoen herrian, jaietan (Goitioitza, Kurtze...) eta zenbait tabernatan lehiak antolatzen zirelako. Taberna asko itxi egin dira eta berrietan ez dira egiten. Muserako zaletasunak ere behera egin du eta gazteek ez dute gure garaian beste jokatzeko. Gaur egun, Enaitz tabernan baino ez da egiten Lezaman", esan du Amarikak.

Euskal Herriko txapelketa

Eta bertan, hain zuzen ere, jokatzeko Euskal Herriko Txapelketaren lehenengo fasea, Ekaitz Legarreta antolatzailearen eskutik. "Lehen saio batzuk egiten ziren, baina gaur egun, Lezaman, egun bateko ligaxka jokatzeko dugu. Guztira, 10-12 bikotek hartu genuen parte bertan eta finalista biok Bizkaiko Txapelketarako sailkapena lortu genuen. Hori Bilbon jokatu zen eta lehenengo hamar bikotek Euskal Herriko Txapelketaren finalera joateko aukera izan genuen". Azken hamar urteotan, Igor biak aritu dira ber-



"Giro polita dago finalean, jai-eguna da, aitzakia lagunekin batzeko eta musean jokatzeko"

tan, baina bakarrik aurten heldu dira finalera.

"Finala Zornotzako frontoian, martxoaren 25ean, jokatu zen. Bikoteak multzoka banatu ziren eta guk arabarren, giputzen eta nafarren kontra jokatu genuen. Bakarrik partida bat irabazi

ArtileArtean
Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Urte 7, behean
48160 DERIO (Bizkaia)

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31



"Musean ez zara inorekin fidatu behar: aurten, andre nagusi bik izugarrizko jipoia eman ziguten"

genuen. Dena dela, giro polita dago", aipatu du Amarikak. "Bai, jai-eguna da, txapelketa aitzakia baino ez da lagunekin batzeko, elkarrekin egoteko eta, noski, musean jokatzeko. Gainera, Euskal Herria aldarrikatzeko ere balio du, mus txapelketa euskal herrialde guztien

artean jokatzen den bakarra baita", erantsi du Serranok.

Euskal Herriko txapelketaren musa desberdina da, zortzi erregerekin jokatu beharrean, lau erregerekin jokatzen delako. "Batuetan, erratzen zara, hirua erregetzat edo bia batekotzat jotzen duzulako. Beste era batean jokatu behar da, egokitu behar zara. Apustuak zuhurragoak izan behar dira, harriak berreskuratzea askoz zailagoa delako. Jokoak ere laburragoak dira, 30 harri lortu behar direlako, ez 40. Nik animatuko nuke jendea lau erregerekin probatzera: hasieran, ematen du aspergarria dela, baina polita da eta egokitzapena ez da gogorra".

Izatezko bikotea

Igor Serrano Lezamako harakinaren semea da. Berrogeita hamar urte ditu, eta "horietako 40an" musean jokatzen ibili da. Anaia txikiak erakutsi zion jokatzen eskolako errekreoan. Amerika Zamudion jaio zen, baina 12 urte zituela Lezamara joan zen bizitera. Igor biak lagunak dira betidanik eta elkarrekin hasi ziren musean jokatzen eta lehiaketetan parte hartzen. "Gazteak ginela, bikotekide bat behar zuen txapelketa baterako, deitu egin zidan eta handik aurrera beti elkarrekin jokatu dugu", esan du Amarikak.

Andrearekin baino denbora luzeago daramate elkarrekin, beraz. Izatezko mus-bikotea dira. Eta normalean, horrelakoetan ez dago ez dibortziorik, ez desleialtasunik. Tira, normalean. "2018an Bizkaiko txapelduna izan nintzen beste bikotekide batekin. Lagun batek deitu egin zidan ordezko ibiltzeko eta azkenean jokatzea egokitu zitzaidan. Azkenean irabazi egin genuen saioa", adierazi du Serranok.

Lezamarrek ez dituzte inoiz era berezi batean txapelketak prestatzen. Sekreturik ez dago, bakarrik "karta onak" eskuetan izatea. "Eta gomendagarria da bikotekidea ondo ezagutzea, euren kartak zeintzuk diren jakitea, horiek ere erabiltzeko. Horretarako, keinuak egin daitezke, baina arrisksua da jendea adiadi dabilelako eta keinua harrapatzen badute, abantaila alferrik galtzen delako". Beste gomendio bat eman dute, "inorekin ez fidatzea". "Aurten, andre nagusi biren kontra jokatu genuen, bien artean, 150 urte zituzten, eta izugarrizko jipoia eman ziguten". Euskal Herriko txapela falta zaie, baina errege-parea dira Igor Serrano eta Amerika.

Mikel Zarate, 2 · 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 · yedrainterflora@hotmail.com

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierrri.com

ITURRIGANE, 2
635584941
EGUNERO
8:00-22:00

Etxebizitza duina izatearen garrantzia

t: Alaiz Zuazo, gizarte-langilea

Etxebizitza duina esaten dugunean, herritarrak segurtasunez, bakean eta duintasunez bizi diren etxebizitzaz ari gara. Gainera, oinarrizko giza eskubide-etako bat da. Etxebizitza duinik ez izateak hainbat arazo ekarri ditzake.

Gizarte Inklusioari lotutako esku-hartzearen prozedura da egoera zaurgarrian dauden pertsonen gizarte-beharrizanei erantzuna ematea. Hala ezarri da hurrengo bi arau hauetan: Euskadiko 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiko 59/2009 Foru Dekretua. Hori kontuan hartuta, PAI Bitartean zerbitzuak bizi-kidetzarako estruktura eskaintzen die gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsoneri.

Zerbitzuak aurrera egin du Bizkaiko Foru Aldundiaren zein zerbitzuko berako lantaldearen laguntzari esker. Alde biak koordinatuta, pertsonen independentziaren alde egiten da lan, eta laguntza ere ematen zaie. Horrela, ahal den neurrian, gure lantaldeak etxebizitza topatzen laguntzen die gizartetik kanpo dauden edo egon daitezkeen pertsoneri. Mungialdean eta Txorierrin jarduten dugunez, etxebizitzak eskualde horietan bietan topatzen ahalegintzen gara.

Baliabiderik ezak zaildu egiten du eginbeharra. Nolanahi ere, urte askoan alderdi nagusi bik zailago egin dute etxebizitza eskuratu ahal izatea: alde batetik, estigma sozialak, eta bestetik, alokairu sozialeko etxebizitza nahikorik ez egoteak. Era berean, dirulaguntza batzuk ez dira bateragarriak izan, eta, hortaz,



etxebizitza partekatzea zaila izan da. Orain, lege-aldaketa dela eta, etxebizitza bereko kideek jasotzen dituzten dirulaguntzak bateragarriagoak izango dira.

Funtsean, etxebizitza duina izatea ezinbestekoa da pertsonen bizitzan. Izan ere, etxe segurua eta egonkorra badute, arreta euren bizitzaren beste alderdi garrantzitsu batzuetan ipini dezakete.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bizkargi Kafetegia

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



Kailu-belarra (orotarako sendagaia)

t: @txiribita_mundi

Sedum telephium. Hosto iraunkorreko landare sendoa da eta 60 zentimetroko altuera ere izan dezake. Hosto lauak ditu, mamitsuak, horzdunak, txandakakoak eta ugariak; loreek, bestalde, lore-buru trinkoak osatzen dituzte eta purpura kolorekoak izan daitezke, gorrixkak edo zuriak. Udan loratzen da. Erdialdeko eta Hegoaldeko Europako mendietako landarea da jatorriz. Berton, Pirinioetan eta Aurre Pirinioetan hazten da modu naturalean, basoetan eta gune ilunetan, familiako beste espezie batzuk ez bezala, gauza baita leku laiotzetan hazteko. Landare zukutsuen familian sartu daiteke kailu-belarra eta, familia horretako espezie guztiak moduan, oso ondo egokitzen da lehortera, hostoetan ura gorde dezake eta.

Kanpoko erabilera sendagarriak

Bere hostoak tirita naturalak dira eta, estaltzen dituen azala kenduta, edozein ebaki, zauri edo erredura orbaintzeko erabili daitezke. Kailuak tratatzeko ere oso eraginkorrak dira eta gaztelaniazko

izena hortik dator kio hain zuzen. Zauriak orbaintzean eta ubelak sendotzen laguntzeaz gainera, handitutako gorputz-zatiak leuntzen eta biguntzen ditu. Hurrengo kasu hauetan erabiltzen da:

- **Zauriak, larruazalaren ultzerak eta erredurak.** Hostoa azalaren gainean ipini daiteke tirita balitz moduan. Era berean, lozioa erabili daiteke zauriak,

larruazalak eta erredurak garbitzeko, bereziki infektatuta edo zikin badaude. Likido orbaintzailea egiteko, 30 g hosto irakin beharko dugu ur litro batean. Lozioa zuzenean ezarriko dugu larruazal kaltetuan, bizpahiru aldiz egunean.

• Kailuak eta azalaren gogorguneak.

Kailu-belarraren hostoek bigundu eta heretzen dituzte, eta erraz erazte ahalbidetu.

Hostoak oliotan kontserbatu daitezke, antzina egiten zen moduan, lehortzen zailak dira eta. Lehen esan moduan, kaltea duen gunearen gainean ipini daitezke, estaltzen dituen mintza kenduta.

Beste erabilera batzuk

Landarea erretzen bada, intsektizida moduan erabili daiteke.

Ortuan

Erraz landatzen den landarea da, oso gogorra, eta ur gutxi botata ederto bizi da loreontzian zein lurrian. Klima hotzak jasaten ditu eta eguzkitan nahiz erdi-itzaletan landatzen da ondo. Sedum guztiak moduan, hosto- edo zurtoin-aldaxken bidez ugaltu daitezke udan. Oso kementsuak eta landatzen errazak direnez, askotan erabiltzen dira lorezaintzan; gainera, oso loraldi ikusgarriak dituztenez, oso erakargarriak dira erleentzat eta tximeletentzat.

Bitxikeriak

Bere izena Telephus izenetik dator. Telephus Herkulesen semea zen eta, Greziako mitologiaren arabera, landare honen propietate sendagarriak desku-bitu zituen.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezke; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

Hezkuntza soziolinguistikorako materialen bilduma sarean erabilgarri



a: www.csic.es

Izaro Arrutiren eta Sandra Prietoren lanean oinarrituta, Soziolinguistika Klusterrak, Mondragon Unibertsitateko HUH-EZI Fakultateak eta Ikastolen Elkarteak landu dute datu-basea helbide honetan: www.soziolinguistika.eus/hezkuntzasl. Bertan, hezkuntza-baliabide gisa erabili daitezkeen euskararen soziolinguistikaren eremu askotariko materialak bil-tzen dira.

Egitasmoaren jatorrian funtsezko ideia hau dago: bere burua eraldatu nahi badu, hizkuntza gutxituaren komunitateak ezagutza soziolinguistikorako sarrera bermatu behar die bere kideei. Hortaz, datu-base irekian materialak sartu dira lantzeko

Soziolinguistika, munduko hizkuntzak, hizkuntza ekologia eta euskararen biziberritzearen inguruko eduki teorikoak eta ezagutza praktikoak lantzeko. Materialen erreferentziak eta estekak sailkatu dira formatuaren, modalitatearen eta gaien arabera.

Egitasmoaren sustatzaileek azaldu dutenez, ezagutza soziolinguistikoaren hedapena estrategikoa da euskararen biziberritzearen ikuspegitik. "Bere burua eraldatu eta bera inguruan eragin nahi duen komunitateak hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana ulertzen lagunduko dioten tresnak behar ditu. Hezkuntza norbanakoak gizarte-bizitzarako prestatzeko mekanismoa den heinean, hizkuntza gutxitu baten komunitateko

kideok hezkuntza soziolinguistikoak jasotzea funtsezko beharra da". Askok eta askotarikoak dira hezkuntza-baliabide gisa erabili daitezkeen euskararen soziolinguistikari lotutako materialak. "Pertsona eta erakunde askok sortu dituzte testuak, argitalpenak, hitzaldiak... Bakoitzak bere testuinguruari eta beharriari egokitu eman die forma material horiei. Proiektu honek sakabanatuta dauden baliabide horien guztien bilduma du oinarri".

Hasierako lerroetan adierazitako webgunean sartu, eta bilaketa librea egin daiteke. Nolanahi ere, bilaketa aurreratu ere egin daiteke. Horretarako, materialaren formatua aukeratu daiteke: artikulua, estatistikak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, katalogoak, unitate didaktikoak, liburuak... Modalitatea aukeratzeko ere badago, hala nola irakasleek ikasleekin lantzeko baliabideak diren, irakasleen auto-formakuntzarako materialak eta kanpoko eragileek irakasleekin edo ikasleekin lantzeko materialak. Azkenik, gaia ere antolatu daiteke bilaketa: hizkuntza aniztasuna eta hizkuntzen egoera munduan, hizkuntzen kontsiderazio politikoa eta soziala, hizkuntza ekologia, kontzeptu soziolinguistiko nagusiak, euskararen ibilbide historikoa eta hizkuntza-ohiturak, batzuk aipatzearen.

Arrutik eta Prietok Master Amaierako Lanerako egin zuten lana. Bestalde, horren egokitzapena egin, eta lehen saria jaso zuten 2021eko Txillardeggi-Hausnartu Soziolinguistika Sarietan; *Bat* soziolinguistika aldizkarian ere argitaratu dute euren lanetik eratorritako artikulua zientifikoa. Bilduma 2022an ipini zen sarean eskuragarri.





Zientzia eta Teknologia Parkean

Etetik gertu eta urrun joan barik leku harrigarriak topatzen ditugu batzuetan. Normalean, halako lekuak bakarrik baloratzen ditugu kanpoan, turismoa egiten, ibiltzen garenean.

Argazkia: Alex Albarrán

PATXI
KOOP

IRAN KOOPERATIBA ELKARTEA
Larrea 4, 48100 Zaramio (Bizkaia) | Tel: 944 527 247 | info@paxi.coop | www.paxi.coop

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txantxangerri s2
ZAMUDIO
iz@iragunkaria@gmail.com

Centro Dental
Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mixine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

elekma
LIRIATZAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TONUKAK.

Lehenengo markak • prezioak onenak.
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorien etxebidea, 253. N.º 48180 Iruya
T: 944 539 232
www.elekma.es

Txibia patata, arrautza eta ilarrekin

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 600 g patata
- 4 arrautza egosi
- 250 g txibia
- 250 g ilar
- Kipula bat
- Bi berakatz-atal
- 500 ml arrain-salda
- 100 ml ardo zuri
- 40 g irin
- Perrexila
- Olio
- Gatza
- Piperbeltza

Prestatzeko era:

Saltsa egiteko, kipula eta berakatzak txikituko ditugu. Sepia kazola batean salteatuko dugu, eta gorde. Kipula eta berakatzak arin frijituko ditugu bost minutuan. Irina gehituko dugu, txigortu, eta 150 ml arrain-salda gehituko dugu; eragingo dugu. Perrexil txikitua ere gehituko dugu. Beste kazola batera ardo zuria eta 150 ml arrain-salda bota, eta bertan patatak egingo ditugu; gatza eta piperbeltza botako ditugu. Patatak zuritu, garbitu eta txikituko ditugu. Saltsara bota, eta 30 minutu inguru egosiko dugu; beharrezkoa bada, arrain-salda gehiago botako dugu. Txibia eta ilarrak



a: www.elmueble.com

gehituko ditugu, eta 10 minutuan egin. Azkenik, arrautzak erditik moztuko ditugu, kazolara gehitu, eta irakinaldi bat emango diegu.

Zainzuriak, izokin-saltsarekin

Osagaiak (4 pertsonentzat):

- 16 zainzuri lodi
- 100 g izokin ketu
- Kipula bat
- 300 ml limoi-ura
- 100 ml esnegain
- Ezkaia
- Kimu-eskukada bat
- Oliba-olioa
- Gatza
- Piperbeltza

Prestatzeko era:

Kipula zuritu, eta txikituko dugu. Zartagin batean olio apur bat ipini, eta bertan kipula egingo dugu, su motelean eta 10-15 minutuan. Egiten den bitartean, tiratan ebakiko dugu izokina. Kipula eginda dagoenean, esnegaina gehituko dugu, eta limoi-ur apur bat. Gatza eta piperbeltza botako ditugu, eta minutu pare batean izango dugu sutan, harik eta nahasia loditzen hasten den arte. Sua amatatu, eta gehituko ditugu izokina, limoi-ur apur bat eta ezkaia-hosto batzuk (txikituta); saltsa gordeko dugu. Zainzuriak xukatu, eta zartagin batean egingo ditugu olio apur batean. Alde bietatik gorrituko ditugu minutu batean. Zainzuriak plateretan banatuko ditugu eta saltsa botako diegu gaintik, kimuek lagunduta.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

ZURREGOITI JATETXEA

Lauroela etorbidea, 27
48180 Laliu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaunregoitzi.com

PELUKERIA ESTETIKA LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Basernko oga
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, 2/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Umeen txokoa: sei desberdintasunak

Ezetz sei desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.orientacionadujar.wordpress.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Hamabost egun
Urgainen (Erein),
José Antonio
Loidi.

II: Cristina
Fernández
Blanco.

–Cayo Hueso (Elkar), Oihane
Amantegi.

–Su festak (Susa), Jon Urzelai Urbieta.

–Ura saltoka (Alberdania), Juan Kruz
Igerabide.



LITERATURA: GAZTEAK

–Onin eta surf txapelketa (Travel Bug
publicaciones), Ibon Martín Alvarez.

–Iratí (Erein), Joxean Muñoz. II: Juan
Luis Landa Hernandez.

–Liburu bat banintz (Txalaparta),
José Jorge Letria. II: André Letria.

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz.
–Katutxoen emozioak (Ttarttalo).

Sudokua

| | | | | | | | |
|---|--|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 5 | | | |
| | | 6 | 7 | 3 | | | |
| 1 | | 7 | 8 | | | | 6 |
| | | 5 | | 8 | 2 | | 1 |
| 6 | | 8 | 9 | | 7 | | 5 |
| | | | | | | 2 | |
| | | | | 7 | 6 | | |
| | | | | 9 | | | 1 |
| 8 | | | 2 | | 3 | 6 | |

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 6 | 9 | 6 | 3 | 4 | 2 | 1 | 7 | 8 |
| 9 | 5 | 8 | 7 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 2 | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 8 | 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 8 |
| 3 | 6 | 4 | 5 | 9 | 8 | 7 | 1 | 2 | 3 |
| 5 | 9 | 2 | 1 | 7 | 6 | 4 | 3 | 8 | 7 |
| 7 | 1 | 9 | 3 | 5 | 4 | 2 | 8 | 6 | 5 |
| 6 | 2 | 8 | 9 | 1 | 7 | 3 | 5 | 4 | 6 |
| 4 | 3 | 5 | 6 | 8 | 2 | 9 | 7 | 1 | 3 |
| 1 | 4 | 7 | 8 | 2 | 9 | 5 | 6 | 3 | 4 |
| 2 | 5 | 6 | 7 | 3 | 1 | 8 | 4 | 9 | 2 |
| 9 | 8 | 3 | 4 | 6 | 5 | 1 | 2 | 7 | 8 |



Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxi.aeropuertobilbao.com



L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857



OAKLAND

ENGLISH



Silvia Palumbo

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: *MAUS* liburua, Julen Gabiriaren eskutik. Maiatzaren 11n, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.



Ikastaroak

Lezama

- > Batukada, Silvia Palumbok gidatua. Maiatzaren 7an, 10:00etatik 14:00etara, Uribarri Topalekuan.

Larrabetzu

- > "Zaintzak erdigunean" tailerra. Maiatzaren 30ean, 18:00etatik 20:00etara, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Larrabetzu

- > Arrasate 1936: *emakumea, gerra eta errepresioa*, oroimen historikoaren inguruko dokumentala eta solasaldia. Maiatzaren 3an, 19:00etan, osoko bileren aretoan.
- > Zinekluba: *24 millas* dokumentala. Maiatzaren 16an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Txinpasmendi elkartearekin elkarlanean.

Kirolak

Larrabetzu

- > Pala txapelketa feminista. Maiatzaren 14an, 10:00etan, frontoian.

Ospakizunak

Larrabetzu

- > Bizkargi Eguna. Maiatzaren 7an.
- > Baserritarren eguna. Maiatzaren 10ean.
- > Kuadrilla eguna. Maiatzaren 20an.



Musika

Zamudio

- > Zamudioko Kamara Koralarren emanaldia. Maiatzaren 27an, 19:30ean, San Martin elizan.

Lezama

- > Kontzertu bioleta, Silvia Palumboren eskutik. Maiatzaren 5ean, 19:30ean, Kultur Aretoan.

Larrabetzu

- > Maiatza musikala. Maiatzaren 8an, 18:00etan, Anguleri kultur etxean; hilaren 10ean, 17:30ean, Angulerin; hilaren 13an, 19:30ean, Andra Mari elizan; eta hilaren 26an, 19:00etan, Andra Mari elizan.

Beste batzuk

Lezama

- > Uda programan izena ematea. Maiatzaren 8tik 19ra, liburutegian.

Larrabetzu

- > Uda programan izena ematea. Maiatzaren 8tik 19ra, Anguleri kultur etxean.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTEKI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B
48150 SONDIKA

634 410 470
aузokidefincas@gmail.com



Konekta zaitez gurekin!



Parte hartu aikor.eus webgunean

Zure argazkiak eta albistek bidali



E-posta:
aikortxori@aikor.com



WhatsApp:
688 86 41 35

STIHL



**PRESTATU
LORATEGIA
ESKAINTZARIK
ONENEZ
BALIATUTA**

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
944 540 652
astikene@agrojardinastikene.com

WWW.AGROJARDINASTIKENE.COM

LEHEN 209 €
ORAIN
199 €

**BELARRA
MOZTEKO MAKINA
BATERIADUNA**

RMA 235 **AKER**

BATERIA ETA
KARGATZAILEA
EZ DAUDE BARNE



LEHEN 139 €
ORAIN
129 €

**ZERRA BATERIADUN
TXIKIA**

GTA 26 **AKER**

BATERIA ETA
KARGATZAILEA
EZ DAUDE BARNE



LEHEN 249 €
ORAIN
219 €

**BERRIA
UR-GARBITZAILE
ELEKTRIKOA**

RE 100 PLUS
CONTROL



OPARIA: CU 100 OROTARIKO
DETERGENTEA (1 L) ETA
GARBITZEKO TRESNAK

